





**LSD**

**Tripiak...**

**Azido lisergikoaren dietilamida da (LSD-25).** Nazioartean lisergida deitzen zaio.



**Tripiak:** Xukapaperezko lauki txikiak. Logo edo marrazki txiki batzuk izaten dituzte.

**Mikropuntuak:** Solido txiki-txikiak, hainbat koloretakoak.

Beste itxura batzuetan ere aurki daiteke: **Gelatinak eta tantak.**


Kontzentrazioa, batez beste, 50 eta 200 mikrogramokoa izaten da (mikrogramoa= gramoaren milioiarena=µg).



dosia zenbatekoa den eta nola hartzen den

02

Normalean ahotik hartzen da.



Dosia 25 µg-tik aurrera da aktiboa. Batez besteko dosia 100 µg-koa da, eta dosi handiak 250 µg-koak.

hasierako ondorioak

03

01

LSDaren ondorioak ez dira beti berberak. Hainbat alderdik du eragina: zenbateko dosia hartzen den, non-nola hartzen den, aldarre onean ala txarrean egon bitartean hartzen den, zer espero den eta pertsona nolakoa den.

03

Kontzientzia-egoeretan aldaketak eragiten ditu, barruko eta kanpoko munduak beste era batera ikustu dira, haluzinazio bizi-biziak izaten dira, espazioa eta denboraren pertzepzioa aldatu egiten da, koloreak eta hotsak nahasten dira, logura eta nekea txikitu egiten dira eta giharrak zurruntzen dira. Ondorio horiek normalean 8-12 ordu bitartean irauten dute,

baina dezente denbora gehiago behar da kontzientzia erabat bere onera etorri arte.

02

Hartu eta gero, gerta daiteke

goragalea izatea, begi-niniak dilatatzea, arteria-presioa handitzea, bihotza bizkortzea, gorputza ahultzea, logale izatea eta gorputzeko tenperatura handitzea.

Hartu eta gero, hiru fase bereiziko ditugu:

- Hartu eta 20 edo 30 minutura, eta gutxi gorabehera 2 orduz, bihotza bizkortu egingo da, asaldatuta ibiliko gara, egonezinik, ikaragarri pozik eta lotsa galduta.

- Hartu eta 30-60 minutura, eta gutxi gorabehera 5 orduz, ilusioak eta haluzinazioak agertzen dira; distantziak, denbora, irudiak eta koloreak nahasten hasiko gara; musikari hobeto igarriko diogu; barre txoraa. Baliteke bidaia norberaren baitarakoa izatea (pertsonek beraren barrurantzkoa).

- Esperientziak badu hirugarren fase bat: ondorioak leuntzen hasten dira, eta baliteke nekatuta eta abailduta geratzea.

04

Nahiz eta ohikoa ez izan, gerta daiteke beldurrak, ziurtasun-gabeziak eta halako sentimenduak agertzea, edo dardarizoak eta gorputz-ikarak izatea. Horixe da "bidaia txarra" esaten dena. 24 orduz ere iraun dezake, eta, gertatzen bada, izango da momentu pertsonalarengatik, hartutako dosiarengatik eta LSDa hartzeko zalantzearengatik.



ondorioak epe ertain eta luzera

04

01

"Flashback-ak": LSDa hartu gabe substantziak berezkoak dituen ondorioak agertzea. % 15ak izaten ditu.

02

Ez du ez mendekotasun fisikorik ez psikikorik sortzen.



03

LSDak tolerantzia eragiten du (maiz hartzen denean ondorioak gero eta gutxiago nabaritzen dira), eta, ondorio berberak lortzeko, gero eta dosi handiagoak hartu beharko dira.

nahastearen ondorioak


05



LSDak oso indar psikoaktibo handia du eta ez da komeni beste droga batzuekin nahastea, ezta sendagaiekin ere, bestela, ustekabeak gerta daitezke.

01

Bi nahasketa dira normalenak:



LSDa + KALAMUA

Dosi txikitik, lasaitzeko, egonezina baretzeko edo esperientzia laguntzeko balio dezake kalamuak.



LSD + MDMA

LSDaren haluzinazioak konpentsatzeko balio du, beste ondorio atseginoak batzuk eraginez, batez ere zentzumenetan, baina kasu honetan ere dosi txikitik.



## Ez hartu baldin eta...



...zuk zeuk edo senitartekoren batek alde aurretik arazo psikologikorik izan baduzue, edo tratamenduan bazaude.

...bolada txarrean bazaude edo ezegonkortasun emozional sakona baduzu.

...haurdun bazaude edo bularra ematen ari bazara.

...arriskuko edo arreta handiko zer edo zer egin behar baduzu, esate baterako, gidatu.

...hazteko adinean bazaude.

## Hartzea erabaki baduzu...

### hartu baino lehen...

Substantziaren berri jakitea komeni da, gozamina eta arriskuak zuk zeuk neurtzeko.

Ez ahaztu zure bizitzako zer momentutan zauden, zer aldartetan zauden, ezta zure historia pertsonala ere, neurri handi batean gauza horien araberakoa izango baita esperientzia.



...konposizioa ezagutzen ez dugunez, hobe hasieran 1/4 bat hartzea, eta zer ondorio dituen ikustea.

... garrantzitsua da kontsumitu aurretik zerbait jatea, baina ordu eta erdi lehenago, bestela ondorioei beranduago igarriko diezu eta baliteke digestio txarra izatea.



Testuinguruak izugarriko garrantzia du, ondo aukeratu momentua, konfiantzazko lagunak eta arituak, eta, halaber, leku eroso bat.

Goranzko fasean, baliteke egonezina sortzea. Lasai egon, ez da-eta luzerako izaten.

### hartu bitartean

Dosia ondo tartekatu eta kalkulatu.

Harreman sexualik baldin baduzu, gaixotasunik ez harrapatzeko eta nahi izan gabe haurdun ez geratzeko, preserbatiboa erabili.



Kalte egiten badizu, lasai egon, onartu eta buelta ematen saiatu. Leku lasai batera joan. LSDaren eragina moteldu ahala zure onera itzuliko zara.




Zure lagun bati egin badio kalte, lasaitzen saiatu, eta, leku itxiren batean bazaudete, kanpora atera eta paseatu. Beharrezkoa iruditzen bazaizu, 112 telefonora hots egin.



### hartu ondoren

Baliteke neke fisiko eta psikologikoa izatea. Hurrengo egunetan betebeharrak garrantzitsurik badaukazu edo erantzukizuneko ezer egin behar baduzu, hobe ez hartzea.



Gogoan izan hartu eta 5 egunez gartzan zaiola gernuan.



Gogoan izan kalean LSDa edukitzeak edo hartzeak 300 euro edo gehiagoko isuna dakarrela. Trafikatzeak, saltzeak edo banatzeak kartzela-zigorra dakar.



Ai laket!! Irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da eta legeztatu gabeko drogen kontsumitzaile zein kontsumitzaile ohiek osatzen dugu. Ai laket!!-en, kontsumo arduratsuen ikuspuntutik eta erabilerak eragindako arriskuak autogestionatzeko ikuspuntutik, askotariko substantzia psikoaktiboekin bizitzen ikastearen aldeko apostua egiten dugu. "Drogak kontsumitu, bai ala ez" pertsona helduek informazioa jaso ondoren askatasunez hartu beharreko erabakia dela uste dugu. Ai laket!!-en asmoa ez da erabaki horren gainean eragitea, baizik eta informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria ematea, hartzaile, kontsumitzaile, erabakia ondo hausnartutakoa izan dadin eta kontsumitzaileek ahalik eta zentzutasun handienaz jokatzeko informazioa izan dezaten.

Erremerteria kalea 88,  
01001 Vitoria-Gasteiz  
Tel 945 23 15 60  
ailaket@ailaket.com · www.ailaket.com